

**Hizkuntza bat baino gehiago dituzten lurraldeetan  
legeak egiteari  
buruzko sinposioaren inaugurazio-ekitaldia**

**Inauguración del simposio sobre producción legislativa  
en entornos multilingües.**

**Deustoko Unibertsitatea 2000go azaroaren 14an**

**Juan María Atutxa Mendiola.  
Eusko Legebiltzarreko lehendakaria.**

Egun on, eta eskerrik asko sinposio honetara etorri zareten guztioi. Sinposio honek esanahi sakona eta garrantzi ikaragarria dauka niretzat, herritarra, Eusko Legebiltzarreko lehendakaria eta euskalduna naizen aldetik. Bi egun trinko hauetan ikusiko dugu, lehenengo eta behin, lurralde berean bi hizkuntza ofizial egotea ez dela ez gaur egungo arazoa, ez hemen besterik ez dugun arazoa. Hasteko, arazoa ere ez da. Ezaugarri bat da. Bertute bat, lehenengo garaietan hainbat gizarteren edergarri izandakoa eta gaur egun oraindik munduko zenbait lurraldetan bizirik dagoen bereizgarria. Eta hizkuntzen arteko bizikidetzari hori berez ona da, gizakion kultur aniztasunari ekarpen baliotsua egiten baitio. Gainera, tolerantzia sustatzeko eta pluraltasuna sendotzeko pizgarria ere bada. Balio positiboak zabaltzen ditu. Hala izan da beti eta hala izango da aurrerantzean ere.

Ekimen honi izendatu nahi niokeen lehenengo helburua horixe da, hizkuntz eta kultur aniztasunaren ikuspegi horrek duen garrantzia azpimarratzea. Jokaera baztertzailen eta jarrera berdintzailen edo sinplisten aurrean, edozein hizkuntza babesteko eta garatzeko borondate sendoak kultura unibertsala aberasten du. Zentzua eransten dio. Horixe dut, beraz, sinposio hau inauguratzeagatik pozik egoteko lehenengo arrazoia.

Ekimen honek, bidenabar, efemeride bat plazaratzen lagunduko digu: Eusko Legebiltzarren XX. urteurrena. Eta gertakari honek, Biltzar legegile horretako lehendakaria naizen aldetik, poza eta itxaropena sortarazten dizkit. Poza, jardunaldi hauek antolatzeak berak hogeitun urte hauetan asko aurreratu dugula esan nahi duelako. Euskararen eta gaztelaniaren ofizialkidetasuna onetsi zelarik, bi hamarraldiotan ikaragarritzko lana egin da gure euskara gaur egungo beharrianetara egokitzeko. Bene-benetan uste dut hori guztia ezinezkoa izango zela duela hogeitun urte abian jarri ziren erakundeak eduki ez bagenu, erakunde horiei esker erabili ahal izan ditugun baliabideak eduki ez bagenu, eta baliabide horiei esker milaka profesional bikainek beren lana egin ez balute.

Eta beste hainbeste esan daiteke beste sektore batzuei buruz. Hogeitun urte eman ditugu osasun-arloa hobetzen, geure hedabideak sortzen, segurtasun-arloan geure politika garatzen, industria eta ekonomia bultzatzen. Era horretara, gizartertzean, herrigintzan lan egin dugu. Hogeitun urte aski dira balantzea egiteko. Denbora-tarte luze horretatik bi ondorio atera ditzakegu garbi. Batetik, asko aurreratu dugula. Bestetik, denok behin betiko ikasi behar dugula Legebiltzarren baitan dagoela bide hori egiteko tresnarik eraginkorrena: elkarrizketa, bizikidetzari, tolerantziari du izena, bai eta norbera bezalakoak ez diren ondoan bizi izateko, ados jartzeko eta errealitate erabilgarriak, babesgarriak eta probetxugarriak eraikitze ahalmena. Printzipio hori gogora ekartzea ere helburutzat du sinposio honek.

Ekimen honek, bestalde, erantzun ezin hobea emango die euskarazko hezkuntza aspaldi honetan, eta ez hain zuzen arazoak didaktikoengatik edo pedagogikoengatik, jasaten ari den deskalifikazioei. Hizkuntza bat baino gehiago dituzten lurraldeetan legeak egiteari buruzko sinposio honek argi uzten du euskal hezkuntza-sistemak goi-mailako profesionalak sortzen dituela, edozein jakintza teknikatik ederki prestatuak eta gure Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan lan egiteko gaituak. Hori ingeniariaren eta teknikaren arloan nabarmentzekoa bada, are azpimarragarriagoa da zuzenbidearen arloan, eremu horretan beti funtsezkoa izaten da-eta zehaztasun terminologikoz eta semantikoz jokatzeko eta hizkuntza eta lanbide-metahizkuntzak menperatzea. Oso jakintza-arlo zorrotza da hizkuntza baten gaitasunerako. Horregatik, gaurko bezalako ekitaldiek errotik ebaki beharko litzukete eztabaida antzu bezain bidegabe eta suntsizailen horiek. Jardunaldi hauek beste gai batzuk eztabaidatzeko aukera ere emango dute, besteak beste, justizia-administrazioa gero eta gehiago euskalduntzea, prozesu horretan behar-beharrezkoak baitira zuzenbide-lanak bi hizkuntzetan egin ditzaketen profesional elebidunak eta prozedura teknikoak. Horrexetaz airtuko gara egun hauetan. Polemika-ikuspuntutik hartuta, bi auzioi berebiziko arreta eskaini zaie hedabideetan. Gaur, eraikitze-ikuspuntutik begirata, abian jarri nahi dugun lan honek izango ahal du antzeko arrakasta.

Hitzaz ere emateko, adierazi nahi dizuet zer-nolako bizipenak dakartzkidan, euskaldun zahar gisa, gaur Deustuko Unibertsitatean era honetako jardunaldien inaugurazio-ekitaldian parte hartzeak. Nik, euskaldun askok bezala, euskara, nire ama-hizkuntza, barrurantz bizi dut. Oraindik gogoan daukat euskararen kontrako errepresioa eta euskararen lotsa nagusi ziren garaia. Garai hartan sinestara nahi ziguten euskaraz egitea baserriarren kontua zela, gure hizkuntzak ez zuela ezertarako balio, garai berrien kontra zihola. Garai hartan pentsaezina zen egunen batean Eusko Legebiltzara izango genuela. Utopikoa, esango nuke nik. Garai hartan are gaitzagoa zen antzematea Eusko Legebiltzara eratzearen hogeigarren urteurrenean hemen izango ginela, Deustuko Unibertsitatean, zeren gainean eta, legeak euskaraz egitearen gainean berbetan. Eta garai hartan ia ametsa zen pentsatzea jakintza-arlo horretako adituak eta interesa zuten entzuleak bilduko zirela ekimen batean; ausarta ez ezik, gure ametsetatik kanpokoak zirudien ekimen batean. Gaur egun hori posible da. Nire aurpegiari atximurka egin arren, ez naiz esnatzen. Hemen nago. Eta zurrara berezia eragiten dit honek guztiak; aita bat sentituko litzatekeen bezala sentitzen naiz ia. Gure hizkuntza hazten ari da, beste batzuen aldamenean bizi da eta komunikazio-tresna eta tolerantzi zabaltzailen izan nahi du. Lagun-giroaren sortarazle. Zitzu bizian doa hizkuntza juridikoaren mundu komplexuan zehar, trebetasunez. Eta geroari itxaropentsu begiratu diezaioke, etorkizun oso oparoa du eta.

Hori dena kontuan hartuta, nire ikuspegi hirukoitz hori azaldu ondoren, eskerrak eman nahi dizkiet jardunaldi hauek antolatu dituztenei, eta opatu, orobat, jarritako helburuak bete daitezela. Horixe izango da guretzat Eusko Legebiltzarren hogeigarren urteurren hau ospatzeko erarik onena. Horixe izango da bakea, errespetua, tolerantzia eta hitza oinarritzat hartuta elkarrekin bizi eta eraiki nahi dugula adierazteko biderik onena.

## Traducción

Buenos días y gracias a todos por su asistencia a este simposio que tiene para mí, como ciudadano, como presidente del Parlamento Vasco y como Euskaldun un profundo significado y una extraordinaria importancia. En estos dos días de intensos trabajos vamos en primer lugar a comprobar que la convivencia de lenguas oficiales sobre un mismo territorio no es un problema de hoy ni un problema solo de aquí. Para empezar no es un problema. Es una cualidad. Una virtud que adornó a sociedades en el pasado y que sigue distinguiendo a zonas del planeta en el siglo XX. Y esa convivencia es en sí misma un valor, una aportación a la diversidad cultural de la especie humana. Es además un acicate para estimular la tolerancia y fortalecer el pluralismo. Predica valores positivos. Así ha sido y así debe seguir siendo.

La primera misión que quiero atribuir a esta iniciativa es la de reafirmar la importancia que tiene este enfoque del plurilingüismo y la multiculturalidad. Frente a posiciones excluyentes, a tendencias homogeneizadoras o simplistas, la voluntad decidida de proteger y desarrollar cualquier lengua enriquece la cultura universal. Le añade sentido. Esa es, por lo tanto, la primera razón que tengo para sentirme satisfecho por poder inaugurar este simposio.

Esta iniciativa quiere señalar además una efeméride, el XX aniversario de la creación del Parlamento Vasco. Y mi reflexión, como presidente de esa cámara legislativa quiero evocar satisfacción y esperanza. Satisfacción, porque la misma celebración de estas jornadas indica que en estos veinte años hemos avanzado mucho. Reconocida la cooficialidad del euskera y el castellano, en dos décadas se ha realizado un trabajo ciclópeo para poner nuestra lengua vasca a la altura de las necesidades del mundo moderno. Creo sinceramente que sin las instituciones de que nos dotamos hace veinte años, sin los recursos de que hemos dispuesto gracias a las mismas, y gracias al trabajo desarrollado con este amparo por miles de extraordinarios profesionales esto hubiese sido imposible.

Lo mismo puede predicarse de muchos otros sectores de actividad. En estos veinte años mejorando la sanidad, construyendo nuestros propios medios de comunicación, desarrollando una política propia en materia de seguridad, apoyando la industria y la economía, hemos construido, entre todos, sociedad, país. Veinte años son ya un periodo suficiente como para hacer balance y cabe certificar dos cosas. La primera es que hemos avanzado mucho. La segunda es que tenemos que aprender todos y para siempre, que el método que se ha revelado más eficaz para hacerlo vive en el alma misma de la institución parlamentaria. Se llama dialogo, convivencia, tolerancia, capacidad para convivir entre distintos, para ponerse de acuerdo y construir realidades que nos sirvan, que nos amparen, que nos resulten útiles a todos. Recordar ese principio es también otro de los objetivos de este simposio.

Una iniciativa, por cierto, que ofrece la mejor respuesta posible a las descalificaciones que últimamente y no por razones precisamente didácticas o educativas, sufre la educación en Euskera. Este simposio sobre producción legislativa en entornos multilingües demuestra que el sistema educativo vasco en Euskera produce personal de alto nivel, perfectamente formado en cualquier disciplina técnica y equipado para desarrollar cualquier profesión en las dos lenguas oficiales de la comunidad. Si eso es notable en el campo de la ingeniería o la técnica, resulta particularmente sugerente en el territorio del derecho en el que la precisión terminológica y semántica, el dominio del lenguaje y los metalenguajes profesionales, resulta siempre decisivo. Es una disciplina muy exigente para la capacidad de una lengua. Por eso actos como el de hoy deberían de cortar de raíz debates tan estériles como injustos y destructivos. También se ofrecen aquí esperanzas y posibilidades a debates como el de la euskaldunización progresiva de la administración de justicia, proceso necesitado de profesionales bilingües capacitados para ejercer el derecho en ambas lenguas y procedimientos técnicos. Precisamente a lo que vamos a dedicar los próximos días. En clave de polémica ambas cuestiones han alcanzado grandes espacios en los medios. Quizá este trabajo que hoy emprenden aquí, en clave de construcción, obtenga el mismo éxito.

Me queda, para cerrar esta introducción, mi vivencia como euskaldunzarra. Lo que para mí significa en esa condición poder asistir hoy, en la Universidad de Deusto, a la inauguración de unas jornadas de las características que vamos a vivir. Yo comparto con muchos otros ciudadanos del país vasco la experiencia de vivir la propia lengua, la lengua materna, hacia adentro. Recuerdo los tiempos de la represión sobre el euskera y también los del complejo. Viví los tiempos en los que trataron de que creyéramos que hablar euskera era de aldeanos, que utilizarlo era perfectamente inútil, que iba contra los tiempos. Entonces era muy difícil imaginar que algún día tendríamos Parlamento Vasco. Utópico diría yo. Mucho más complejo resultaba pronosticar que veinte años después de su constitución estaríamos aquí, en la Universidad de Deusto, nada menos que hablando de la producción de leyes en Euskera. Y prácticamente un sueño suponer que iba a haber especialistas en la materia y audiencia para una iniciativa tan osada que no figuraba ni en el catálogo de nuestros sueños. Hoy eso es posible. Me pellizco y no me despierto. Estoy aquí. Y siento una emoción profunda, casi de naturaleza paternal. Nuestra lengua crece, convive con otras y quiere ser herramienta de comunicación y misionera de tolerancia. Base de concordia. Navega a toda máquina en el complejo mundo del lenguaje jurídico, con solvencia. Y es capaz de mirar al futuro con una esperanza y unas posibilidades enormes.

Por eso en las tres condiciones en que he realizado esta intervención no me queda sino agradecer trabajo y esfuerzo a todos los que han hecho posible esta iniciativa y desear que cumpla los objetivos con los que parte. Será para nosotros la mejor manera de señalar el vigésimo aniversario del Parlamento Vasco. Será el mejor modo de certificar nuestra voluntad de convivir y construir desde la paz, el respeto, la tolerancia y algo tan inequívocamente humano como la palabra.